

Homeless Film jaialdia egingo du Bizitegi elkarteak datorren asteazken eta ostegunean, Bilbon. Etxegabeek sortu eta egindako lanak ditu ardatz jaialdiak. Eurak dira protagonista eta haiei ematen diete ahotsa. Herritarrek eurekiko beste ikuspegi bat izatea lortu nahi dute antolatzaileek.

# Herritar ikusezinen egia

Natalia Salazar Orbe *Bilbo*

Ikusezina batzuentzat. Pena sentimenduaren sorrarazleak beste batzuentzat. Egoera horretara nolatan irits daitezkeen galdera bueltaka askoren buruetan. Kanean bizi. Batetik bestera. Egunero. Nola biziraun daitezke era horretan? Galdera horri erantzunon diete bizi-modu horretako protagonistek eurek Homeless Film jaialdian. Etxerik gabeko pertsonak sortu, ekoitzi eta antzetzutako lanak jasotzen eta erakusten dituen munduko jaialdi bakarrean. Datorren asteazkenean eta ostegunean ikusi ahaliko dira, Bilboko Bizkaia aretoan, etxegabeen errealitatea kontatzen duten hainbat lan.

Jaialdiaren helburua argi azaldu du Monica Fandiño Bizitegi elkarteak kudeaketa aurreratuko arduradunak: «Gurea ez da etxegabeen buruzko lanak biltzen dituen jaialdia. Etxegabeek eurek bizi duten egoera eta errealitatea antzerkiaren edo zinearen bidez islatzeko jaialdia da. Pertsona horien errealitatea islatzeko modua da, baina, batez ere, haiei ahotsa ematekoa. Herritarrek eurekiko beste ikuspegi bat izatea nahi dugu».

Homeless Film Festival Manchesterren (Erresuma Batua) sortu zen, 2011n. Eta handik ekarri zuten Bilbora. Antzerkia eta arte grafikoak gehitu dizkiote orain arte zinea oinarri zuten jaialdiari.

Bizitegiko bi antzerki taldek eta Sevillako eta Bartzelonako beste

bik interpretatuko dituzte euren lanak. Bilboko Kuskurrun taldeak hamar urteko ibilbidea egin du Bizitegirekin. *Kuskurrun en su salsa* taularatuko dute. «Taldea hiru buruko osasun arazoak zi-



**Genero indarkeria pairatu duten emakume etxegabeak dira [‘Quejio de una diosa’ laneko] protagonistak»**

Monika Fandiño

Bizitegi elkarteak kidea

tzuten pertsonen errehabilitazio kognitiboa hobetzera bideratuta dago». Zenbatu taldeak, bestalde, *No les importamos* lana taularatuko du. «Taldeak etxegabeen-

gan jartzen du arreta. Sentsibilizazioa eta salaketara bideratuta dago».

Sevillatik, berriz, Mujereando konpainia iritsiko da, *Quejio de una diosa* antzezlan aurkezteko.

«Genero indarkeria pairatu duten emakume etxegabeak dira protagonistak. Antzerkiaren bidez azalduko dituzte euren bizipenak. Lagungarria zaie ahalduzko, ahalmenak garatzeko, hobeto sentitzeko eta baita euren errealitatearen berri emateko ere».

Antzerkiaren atala asteazkenean gauzatuta, hurrengo egunean zinea bihurtuko da jaialdiko protagonista. Elkarlan proiektua gauzatu du Bizitegi hainbat

ikastetxerekin, gizartearen errealitate horren berri helarazteko. Etxegabeek eurek ematen diete ikasleei euren bizipen eta historiaren berri. «Helburua da ikasleak etxegabeen errealitatearekiko sentsibilizatzea».

Hogeietxegabe aritu dira Bilboko eta Santurtziko hainbat ikastetxe eta institututan World Cafe metodologia erabilita euren bizipenak kontatzen. Gero, ikasleek etxegabeen buruz duten ikuspegia erakusten dute egiten dituzten film laburrek. «Ekarpena aberasgarria da. Izan ere, denek dakite etxetik gertu pertsonaren bat kartoi artean bizi dela. Baina askok ez du pentsatzen gaua ere bertan pasatzen dutela, etxerik ez dutela».

Espereintzia burutu duten ikastetxeetako ikasleen eta ira-



Bizitegi antzeman du «asko» egin duela gora Bilbon kalean bizi diren kopuruak. BIZITEGI

HOMELESS FILM

Bilboko Bizkaia aretoan egingo dituzte Homeless Film jaialdiko emanaldiak, datorren asteazken eta ostegunean.

Urriak 24

**10:00-12:00-** *Kuskurrun en su salsa* antzezlan, Kuskurrun konpainiaren eskutik. *Testigo invisible* antzezlan, Fundacio Arrelsen eskutik.

**19:00-21:30-** *No les importamos* antzezlan, Zenbaturen eskutik. *Quejio de una Diosa*, Mujereando konpainiaren eskutik.

Urriak 25

**10:00-12:00-** Etxegabeei buruzko film laburren emanaldia. Ikasle-txeetako ikasleen film labur finalisten proiektioa. Ondoren, *No les importamos* antzezlan.

**19:00-21:00-** Etxegabeei buruzko film laburrak. Horren ostean, EHUko Film laburren lehiaketa. Eta gero, Miquel Fusterren lekukotza. Bukatzeko, mokadua, 21:00etatik aurrera.

kasleen garapenak oso ondorio interesgarria duela uste du Fandiñok. «Ikasleen begirada erabat desberdina da etxegabeekin egon aurretik eta ostean». Izan ere, antolatzaileen arabera, errealtate horri buruzko hitzaldi batera joanda baino gehiago ikasten dute protagonistekin eurekin talde txikietan hitz eginda. 400 ikaslek hartu dute parte aurten esperientzia horretan. Denera, hirurogei film labur inguru osatu dituzte. Finalisten lanen emanaldia egingo dute jaialdian.

EHUko Gizarte Zientzia eta Komunikazio Fakultateko lauorgeri ikaslek ere parte hartu dute jaialdirako film laburrak eratzeko lehiaketan. Ostegun arratsaldean aurkeztuko dituzte finalistak jendaurrean. Asteazken goizeko emanaldiak ikasleei zuzendutakoak dira. Hala, herritarrei arratsaldeko saioetara joateko deia egin diete antolatzaileek.

Garrantzitsu deritza Fandiñok etxegabeen egoerak ezagutarazteari. Izan ere, zenbaki zehatzik eman ez badu ere, Bizitzegin jabetu dira azken urteetan gora egin duela, «asko». Bilbon kalean bizi diren kopuruak. Horrez gain, larrialdietako baliabideetara gero eta emakume gehiagok jotzen dute. «Seme-alabak dituzte euren kargu, eta egoera zaila da, ez baitago familiei ostatua emateko lekurik. Eta guregana jotzen duten gizonek denbora luzea daramate kalean». Horra hor egia gordina.

# «Beldurgarria da kalean bizitzea»

Miquel Fuster • Etxegabe ohia

Etxebizitza galdu eta alkoholiko bihurtuta kale gorrian geratu zen Fuster. Beldurra, hotza, lorik egin ezina eta norbere bizitza suntsitu izanaz jabetzea izan dira txarrena beretzat.

N.S.O. Bilbo

Miquel Fusterrek (Bartzelona, 1944) hamabost urte egin zituen kalean bizitzen. Arrels fundazioaren laguntzarekin handik ateratzea lortu zuen. Jaialdian kontatuko ditu berak bizitakoak.

**Nola geratu zinen kale gorrian?**

Errenta zaharreko etxebizitza batean bizi nintzen, eta erre egin zen, duela 30 urte. Etxea konponetzea edo erostea zaila iruditu zitzaidan. Izan ere, marrazkigintzan jarduten nintzen agentzia baterako lanean, eta ez nuen uste egon zuten behera salmentek. Higienezin enpresak kalte-ordaina eskaini zidan, milioi bat pezetakoa, eta urtebete eman zidan etxetik ateratzeko. Erretako etxean bizi izan nintzen urte hartan. Alkoholizatu egin nintzen. Auzotik gertu aurkitu nahi nuen beste etxe bat. Hala ere, alokairuen prezioak 45.000 pezetatik gorakoak ziren [270 euro]. Errenta zaharrean 2.000 pezeta ordaintzen nituen. Une hartan jabetu nintzen kalean geratuko nintzela.

**Zer nola biziraun daiteke hamabost urtez kalean?**

Egokitzea beste irtenbiderik ez nuen izan. Beldurgarria da. Hitz horrek soilik deskriba dezake kaleko bizimodua. Segurtasuna galten duzu, zure kontrako giroa nagusi den mundu batean sartzen zara. Kalea oso zakarra da, gehienak alkoholizatuta daude, ni nongoen bezala, eta arazoak sor daitezke. Apurka egokituz zoaz, kaleko kodeak barneratuz: isiltasunaren legea hartzen duzu. Gatazkatsua den norbait ikusten baduzu bere paretik kentzen zara. Erasoen beldur zara etenga-


be. Egunero pentsatzen duzu bizitzako azken eguna izan daitekeela. Eraso ugari gertatzen dira, nahiz eta argitara ematen ez dituzten. Lorik ere ezin duzu egin. Negua iristen denean, gainera, hotza izugarria da. Alkoholizatu ta egonik, ardoa ez zitzaidala faltako ziurtatu behar nuen une oro. Margolanak egiten nituen. Koadroak saltzen nituen, merke merke. Hala irau nuen. Zaila zen, beti erasoren bat gertatzeko beldurretan. Bartzelonako portuan mutiko batzuek harri bat bota zidaten aurpegira eta sudurhezurra hautsi zidaten. Dibertitzearren besterik ez zidaten egin eraso. Ahulenaren aurka egin nahi zuten. Koldarkeria hutsa da hori. Gero ondoko herri batera joaten nintzen gaua igarotzera, lasaia gongo nintzelakoan, baina zakur basatien eta basurdeen eraso saiakerak pairatu nituen.

**Zer ikusten zenuen begiratzen zintuzten herritarren begietan eta zer nola ikusten zenituen zuk haiek?**

Hasieran oso gaizki sentitzen zara. Gero aurre egiten diozu egoera horri, eta berdin zaizu begiratzen bazaituzte zikin egoteagatik, edo ile edo bizar luzea izateagatik. Inori ez diot kalterik egiten. Alkoholizatuta egon arren min gehien ematen duena da konturatzea zure bizitza suntsitu duzula. Jakin badakizu maite zaituztenei zer nolako kaltea egiten diezun. Denbora aurrera doa, eta zure bizitza betirako galdu duzula jabetzen zara. Etxegabe duzu ideia hori buruan.

**Zein laguntza behar du bazterketa arriskuan edo kalean dagoen pertsona batek?**

Garrantzitsuena kalean geratzeko saihestea da. Kalean geratu baino lehen beste guztia utziko nuke, kaletik ateratzea oso zaila da eta.



JUAN LEMUS

**Mondragon Unibertsitatea**

## ATE IREKIAK UNIBERTSITATE GRADUAK

2018/19

Nire etorkizun profesionala gizartearentzat onuragarriak diren berrikuntzak sortzen irudikatzen dut.

*Ainhoa Osa Arocena*  
Bergara. Mekanikako Ingeniaritza. 4. maila.

---

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**ARRASATE AZAROAK 24**  
LARUNBATA 10:30

**GOIERRI AZAROAK 29**  
OSTEGUNA 17:30

**ORONA IDEO ABENDUAK 15**  
LARUNBATA 10:30

**ATE IREKIAK HIRIETAN:**

**BILBAO AZAROAK 8** 18:00  
Bilbao Berrikuntza Faktoria

**DONOSTIA ABENDUAK 18** 18:00  
Kursaal Jauregia

---

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORITATZA ABENDUAK 15**  
LARUNBATA 11:00

**ARETXABALETAK ABENDUAK 15**  
LARUNBATA 11:00

**ATE IREKIAK HIRIETAN:**

**BILBAO AZAROAK 8** 18:00  
Bilbao Berrikuntza Faktoria

---

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**ONATI URRIAK 25**  
OSTEGUNA 18:00

**BIDASOA URRIAK 27**  
LARUNBATA 11:00

**BILBAO URRIAK 27**  
LARUNBATA 11:00

---

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
— Basque Culinary Center

**DONOSTIA ABENDUAK 15**  
LARUNBATA 10:30

---

**Etorriko zarela jakinarazi!**  
902 110 436 — [www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)